

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 844

*136/2022 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Laura Martín Roca andrea Erizaintzako Zuzendaritzako Ondokoaren kargutik kendu egin den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.*

618/2018 Ebazpenaren bidez, Laura Martín Roca andrea Erizaintzako Zuzendaritzako Ondoko izendatu zuten Osakidetzako Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Laura Martín Roca andrea Erizaintzako Zuzendaritzako Ondoko kargutik kentzea berak hala eskatuta, Osakidetzako Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko otsailaren 13tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiok e Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mendaro, 2022ko otsailaren 10a.

Debabarreneko ESiko zuzendari-gerentea,  
MARBELLA GARCÍA URBANEJA.